

2030 AGENDA

GARAPEN JASANGARRIKO HELBURUAK

GIPUZKOAN INGURUMEN- HELBURU ETA -HELMUGEN ARLOAN EGIN DEN AURRERABIDEA

Hirugarren txostena

2020

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Ingurumena eta Obra
Hidraulikoetako Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



Gipuzkoako
Iraunkortasunaren Behatokia
Observatorio de la
sostenibilidad de Gipuzkoa

Aurkibidea

1. Aurkezpena	1
2. 2030 Agenda, maila guztietan modu koordinatuan jarduteko ibilbide-orria 2	
3. Erabili den metodologia	3
4. Ingurumen-adierazleen analisia Gipuzkoan	8
5. Gipuzkoan Ingurumen-helburu eta -helmugen arloan egin den aurrerabideari buruzko emaitza eta ondorio nagusiak	28

2021eko azaroa

Gipuzkoan ingurumen-helburu eta -helmugen arloan egin den aurrerapenaren hirugarren txostena

Gipuzkoako Foru Aldundia

Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentua

Ingurumeneko Zuzendaritza Orokorra

Gipuzkoa Plaza z.g. Donostia 20005

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena>

Agiri hau ADOS Sostenibilidad y Clima S.L. sozietatearen laguntzarekin egin da.

1. Aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuaren egitekoa da Gipuzkoako lurraldeari ekonomia berde baterantz aurrera eginaraztea, Lurraldeko herritarrak, erakundeak eta ekonomia- eta enpresa-sarea inplikaturik.

Departamentuak ibilbide luzea du tokiko eta lurraldeko jasangarritasunaren egoerari buruzko txostenak kudeatzen eta egiten, eta **Gipuzkoako jasangarritasunaren bere Behatokitik**, 2030 Agendako ingurumen-helburu eta -helmugek Gipuzkoan izan duten aurrerapena aztertzeo konpromisoa hartu du.



**Gipuzkoako
Iraunkortasunaren Behatokia**
Observatorio de la
sostenibilidad de Gipuzkoa

Departamentuaren lanaren funtsa ingurumenarekin lotutako alderdiak dira, hala nola hondakinak, energia, klima-aldaketa eta ingurumen-ebaluazioa, bai eta uraren zikloarekin lotutakoak ere. Txosten honetan, Departamentuaren lan-arloekin zerikusia duten Garapen Jasangarriko Helburuak (aurrerantzean, GJH) eta Helmugak aztertzen dira.

Departamentuaren lanaren zatirik handienak laguntzen du, zuzenean edo zeharka, 2030 Agendako **Garapen Jasangarriko 17 Helburuetako 15** eta **169 helmugetako 48** lortzen.

Aurrez argitaratutako bi txostenei jarraitutasuna emanez, hautatutako **66 adierazleen** informazioa eguneratzen du txosten honek, ingurumen-helburu eta -helmugei dagokienez Gipuzkoak lortu duen aurrerapena aztertzeo helburuz.



Bi eratakoak dira adierazleak:

TESTUINGURUARI ADIERAZLEAK



Ingurumenarekin lotutako Nazio Batuen Erakundearen helmugek **Gipuzkoako**

Lurralde Historikoan duten aurrerapen-maila eskaintzen duten adierazleak. Kasu kasu, hainbat eragilek laguntzen dute helmuga horietan aurrera egiten. Adierazle hauetan oinarritzen da, batez ere, txostena.

DAGOZKION

JARDUNARI DAGOZKION ADIERAZLEAK



Departamentuaren

jarduerarekin zerikusia duten adierazleak, eta

Departamentuak, lurraldean egiten duen lanarekin, GJHen ingurumen-helmugei egiten dien ekarpena neurtzea ahalbideratzen dutenak.

2030 Agendak etorkizunaren ikuspegi zabala proposatzen digu, non krisiak gainditzeko gai izango garen, baterako eta partekatutako helburuetan oinarrituta. Txosten honekin, gure Lurraldeak Nazio Batuen ingurumen-helburu eta -helmugei dagokienez egin dituen aurrerapenak erakutsi nahi ditugu. Aztertzea, hobetzeko helburuz, hizkera bera, garapen jasangarriarena, erabiltzeak ematen dituen erraztasunei esker, bizitza duina, bidezkoa eta inor atzean uzten ez duena bermatzeko helburuz.

2.2030 Agenda, maila guztietan modu koordinatuan jarduteko ibilbide-orria



2015eko irailean, **2030 Agenda** onartu zuen Nazio Batuen Erakundeak: Garapen Jasangarriko 17 Helburu, 169 helmugarekin.

Ikuspuntu global batetik, presazkoa da hazkunde jasanezineko eredu aldaztea, garapen-maila ezberdina duten herrialdeen artean ezberdintasun eta injustizia handiak sortzen ari dena. Arazo konplexua da, eta Nazio Batuen Erakundeak erantzuna eman nahi dio, garapen jasangarria bultzatuta. Garapen jasangarritzat jotzen da, garapenaren osagai ekonomikoak, sozialak eta ingurumenari dagozkionak kontuan hartuta eta

bateratuta, orainaren beharrak asetzerantz bideratzen dena, etorkizuneko belaunaldiak haien beharrak asetzeko izango duten gaitasunari kalterik eragin gabe. "Inor atzean ez uztea" da 2030 Agendaren leloa eta, maila guztietan garapen jasangarria bultzatu duten nazioarteko hainbat ekimenen ondoren, gizateriaren erronka honetarako ibilbide-orri bat zehaztea eta ezartzea lortu du.

2030 Agendak ezartzen dituen Garapen Jasangarriko 17 Helburuek lehen aldiz lortu dute modu bateratuan heltzea hiru osagaiei (ekonomikoa, soziala eta ingurumenari dagokiona), 169 helmuga jarrita eta herrialdeen eta lurralde-maila guztietako gobernuen artean ez ezik, deialdia erakunde publiko eta pribatu guztiei, hirugarren sektoreko erakundeei eta, are, gizarteari berari ere eginda, erronka horiek bere egin ditzaten.

Euskadin, Eusko Jauriaritza, hiru foru aldundiak eta udal batzuk, 2030 Agenda beraien politika publikoetarako erreferentzia gisa hartzen ari dira edo horretarako bidean daude.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren maila orokorrago batean, ETORKIZUNA ERAIKIZ ekimenaren eskutik ekin zaio 2030 Agenda ezartzeari.

Departamentu guztiak Garapen Jasangarriko Helburuekin lerrokatzeko asmoz, Diputazioak, Departamentuen aurrekontuetan helmuga zehatzak jarrita, ekintza horretan laguntzeko aukera aztertzen hasi da.

2021. urte honetan, jasangarritasunaren, osasunaren, gizarte-berdintasunaren, ekonomiaren, ekologiaren... aldagai ezberdinen arteko erlazioa agerian jartzen den testuinguru batean gaude. Interrelazio horiek, gainera, dinamikoak dira. Sistema horretan aldatzen den edozein aldagaik eragin garrantzitsua izan dezake gure bizitzetan.

Arazo orokorren ikuspuntu batetik, 2021ean, Glasgown egin den COP26 Biltzarra amaitu berri den honetan, GIPUZKOA KLIMA 2050 Estrategia betearazten ari da Gipuzkoa, eta estrategia horretan ezarritako esparru-plangintza osatzen, Gipuzkoako Jasangarritasun Energetikoaren 2050erako Estrategia berriarekin –GIPUZKOA ENERGIA 2050–, Azpiegitura Berdearen Sarearen Proposamenarekin eta klimari eta ingurumenari dagozkion erronkei

erantzuteko eta Garapen Jasangarriko Helburuak lortzeko funtsezkoak diren ingurumen-alderdiei heltzen dieten hainbat plan eta programa sektorialekin.
















Bestalde, 2021ean, Covid-19aren pandemiak hainbat aldagaien arteko erlazioak berriaz pentsatzeko eta kontuan hartzeko beharra markatzen jarraitzen du, osasunarekin zerikusia duen elementua baita –eta alderdi hori hainbat Helburutan jasotzen du Nazio Batuen Erakundeak, baina Osasuna eta Ongizatea deritzon 3. Helburuan zentralizatzen du–, gure bizitzetan eta planeta osoaren bizitzetan eragina duten gainerako aldagaiak baldintzatzen ari dena. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentua garen aldetik, gure ardura da gure bizitza eta elikadura, airearen kalitatea, gure ur- eta saneamendu-sistemen kalitatea, baliabideen kontsumo arduratsua eta biodibertsitatea bezalako eta gure eguneroko bizitzarako beharrezko eta ezinbesteko zerbitzu ugari eskaintzen dizkiguten funtsezko alderdiekiko gure konexioa baldintzatzen duten aldagaiak behatzea eta, gaur egun inoiz baino gehiago, horiei balioa ematea.

3. Erabili den metodologia

Departamenturako erreferentziazkoak diren Ingurumen-helburu eta -helmugen aurrerapena neurtzeko hautatutako 65 adierazleen multzoa da txosten honen oinarri metodologikoa.

Jarraian, identifikatu diren erreferentziazko 48 helmugak eta Helburu bakoitzerako aurkezten diren testuinguruari eta jardunari dagozkien adierazleak laburbiltzen dituen lehenengo koadroa aurkezten da. Guztira, 49 testuinguru-adierazle eta 17 jardun-adierazle aztertzen dira.

Jarraian, erabili diren Adierazleen laburpen metodologikoa aurkezten da.

GJH						
Helmugak	2.1 2.4	3.9	4.7	5.c	6.1 6.2 6.3 6.4 6.6	7.1 7.2 7.3
Testuinguruari dagozkion adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> o Nekazaritza ekologikoko azalera o Lehen sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak 	<ul style="list-style-type: none"> o Airearen kalitatea 	<ul style="list-style-type: none"> o Ikasleek naturarekin duten konexioaren indizea 	<ul style="list-style-type: none"> o Genero-ikuspegia txertatzen duten ingurumeneko foru planak 	<ul style="list-style-type: none"> o Edateko ura duen biztanleria o Hondakin-uren tratamendurik ez duten hiriguneak o Ibaien kalitatea o Estuarioen egoera ekologikoa o Lurrazpiko uren kalitatea 	<ul style="list-style-type: none"> o Energia-gastua euren gain hartu ezin duten etxeak o Diru-sarrerekiko, gehiegizko energia-gastua duen etxebizitza kopurua o Iturri berriztagarrien kuota o Azken energia-kontsumoa o Azken energia-intentsitateak o Lurraldearen energia-mendekotasuna
Departamentuaren jardunari dagozkion adierazleak					<ul style="list-style-type: none"> o Ibai-ekosistemak berroneratzea 	<ul style="list-style-type: none"> o Energia-eraginkortasuna foru ekipamenduetan
GJH						
Helmugak	8.4 8.9	9.4	11.2 11.3 11.4 11.6 11.a 11.b	12.2 12.3 12.4 12.5 12.6 12.7 12.8	13.1 13.2 13.3	
Testuinguruari dagozkion adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> o Gipuzkoako industria-sektorearen Balio Erantsi Gordina o Ingurumen-kudeaketa duten Gipuzkoako enpresak o Turismo-ostatu jasangarriak 	<ul style="list-style-type: none"> o Industria-sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak o Gipuzkoako enpresa-sektoreak prozesuen ingurumen-hobekuntzetan inbertitutako euroak 	<ul style="list-style-type: none"> o Garraio-sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak o Lurzoru artifizializatua o Zaratagatiko kutsadura o Heritarren parte-hartzearekin egindako Hiri-antolamenduko Plan Orokorra dituzten udalerriak o Tokiko Agenda 21 indarrean duten udalerriak o Tokiko 2030 duten udalerriak (indarrean edo prestatzen) 	<ul style="list-style-type: none"> o Hirri-hondakinak o Birziklatze-tasa o Gaikako bilketaren tasa o Hondakin arrisksuak 	<ul style="list-style-type: none"> o Berotegi-efektuko Gasen emisioak Gipuzkoan o Emisio barreiatuak, biztanle bakoitzeko o Klima-aldaketagatik kezkatuta dauden biztanleak o Klima-aldaketaren aurkako borrokan jarduten dutela dioten biztanleak o Klima eta Energia Planak dituzten udalerriak o Energiaren plangintza eta kudeaketa aktiboak duten eskualdeak o Hondamendiei egotzen zaizkien heriotzak o Natura-hondamendiek eragindako galera ekonomikoak 	
Departamentuaren jardunari dagozkion adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> o Moda Jasangarriko Gipuzkoako enpresak 	<ul style="list-style-type: none"> o Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiak emandako egokitasun-ziurtagiriak o Ekonomia zirkularreko klusterretan parte hartzen duten enpresak 		<ul style="list-style-type: none"> o Naturaldia programan parte hartzen duten pertsonak o Elikagaien aprobetxamendua 	<ul style="list-style-type: none"> o Klima-aldaketaren aurreko Gipuzkoako Estrategiaren egikaritzea 	
GJH						
Helmugak	14.1 14.2 14.3 14.5	15.1 15.2 15.3 15.4 15.5 15.8	16.6 16.7	17.14 17.16 17.17 17.19		
Testuinguruari dagozkion adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> o Mikro-plastikoek eragindako kutsadura o Hondartzetako bainurako uren kalitatea o Kostaldeko uren kalitatea o Kostaldeko eta estuarioetako Babestutako Natura-espazioak 	<ul style="list-style-type: none"> o Babestutako espazio naturalak o Baso erdi-naturalak o Zuhaizdun baso-azalera o Baso-azalera ziurtatua o Babestutako mendi-ekosistemak o Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden fauna-espezieak o Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden flora-espezieak 		<ul style="list-style-type: none"> o Argitaratutako ingurumen-ixostenak o Parte hartzeko egitura egonkorak 	<ul style="list-style-type: none"> o Garapen jasangarriko helburuak lortzeko sare eta aliantzetan duen presentzia 	
Departamentuaren jardunari dagozkion adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> o Hondartzen garbiketa o Hondakin-bilketa kaletan 	<ul style="list-style-type: none"> o Zona degradatuen berroneratzea o Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa o Espezie inbaditzaileen gaineko kontrola Gipuzkoan 				

ODS	Izenburua / Deskribapena	Helmuga	Moza	Iturria	Unitatea	Eskur. azken eko urtea
2	Nekazaritza ekologikoko azalera Nekazaritza ekologikorako erabiltzen diren hektareak	2.4	TESTU.	ENEK	Ha	2020
	Lehen sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak Lehen sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak, CO2 mila tonatan	2.4	TESTU.	IHOBE	Milaka tCO ₂ eq	2019
3	Airearen kalitatea Urtean zehar airearen kalitatea "oso ona" edo "ona" den egunen portzentajea	3.9	TESTU.	EJ*	%	2020
4	Ikasleek naturarekin duten konexioaren indizea 8 eta 12 urte bitarteko haurretan zentratzen den azterketa-metodologia batean oinarritutako indizea. Lau gai neurtzen ditu indize horrek: naturaz gozatzea; animaliekiko enpatia, nortasun-zentzua eta erantzukizun-zentzua.	4.7	TESTU.	GFA*	1-5 eskala indizea	2019
5	Genero-ikuspegia txertatzen duten ingurumeneko foru planak Genero-ikuspegia txertatu den foru-mailako ingurumen-planen kopurua	5.c	JARD.	GFA	Kop.	2020
6	Edateko ura duen biztanleria Modu seguruan kudeatutako edateko uraren hornikuntza-zerbitzua duten biztanleen portzentajea	6.1	TESTU.	GFA	%	2020
	Hondakin-uren tratamendurik ez duten hiriguneak Haien hondakin-uren tratamendu egokirik ez duten 500 biztanle baino gehiagoko hiriguneen kopurua	6.2	TESTU.	GFA	Kop.	2020
	Ibaien kalitatea Egoera onean dauden edo potentzial ekologikoa duten ibaietako laginketa-estazioen portzentajea	6.3	TESTU.	URA	%	2020
	Estuarioen egoera ekologikoa Egoera edo gaitasun ekologiko ona edo oso ona duten estuarioen portzentajea	6.3	TESTU.	URA	%	2019
	Lurrazpiko uren kalitatea Egoera onean dauden lurrazpiko uren laginketa-estazioen portzentajea	6.3	TESTU.	GFA	%	2020
	Ibai-ekosistemak berronertzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Lan Hidraulikoen Departamentuak (Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak) berronertutako ibai-ekosistema hektareak	6.6	JARD.	GFA	Ha	2020
7	Energia-gastua euren gain hartu ezin duten etxeak Energiarekin zerikusia duten ordainagiriak ordaintzeko atzerapenak dituztela dioten etxeen portzentajea	7.1	TESTU.	GFA ¹ Eustat, INE	%	2020
	Diru-sarrerekiko, gehiegizko energia-gastua duen etxebizitza kopurua Gipuzkoako etxeen batez besteko energia-ahaleginaren bikoitza baino handiagoa egin behar duen etxe kopurua (diru-sarrerekiko etxeko energia-gastuaren portzentajea)	7.1	TESTU.	GFA Eustat INE	Kop.	2020
	Iturri berriztagarrien kuota Energia berriztagarrietatik eratorritako barne-kontsumo gordina, inportatutako energia elektrikoaren frakzio berriztagarria barne, guztizko azken kontsumoaren artean	7.2	TESTU.	GFA	%	2019
	Azken energia-kontsumoa Azken energia-kontsumoa Gipuzkoan (kTep)	7.3	TESTU.	GFA	kTep	2019
	Azken energia-intentsitatea Unitate ekonomiko bat sortzeko beharrezko azken energia. Azken energia-kontsumoa eta BPG erlazioztatzen ditu. Azken energia-kontsumoa /BPG (tep/M€).	7.3	TESTU.	GFA	%	2019
	Lurraldearen energia-mendekotasuna Auto-hornikuntza energetikoa. Lurraldean bertan sortzen den lehen mailako energiaren % adierazten du, sortutako lehen mailako energiaren eta barne-kontsumo gordinaren arteko erlazio modura kalkulatu da	7.3	TESTU.	GFA	%	2019
	Energia-eraginkortasuna foru ekipamenduetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren energia-kontsumo handieneko 10 eraikinen kontsumoa (kWh/m ²) (eraikin guztien lehen mailako energiaren kontsumoaren %71 kontzentratzen dute)	7.3	JARD.	GFA	kWh/m ²	2020
8	Gipuzkoako industria-sektorearen Balio Erantsi Gordina Balio Erantsi Gordina (BEG). Industria, sektore guztien BEG-ari dagokionez (prezio arruntak)	8.4	TESTU.	EUSTAT	%	2018
	Ingurumen-kudeaketa duten Gipuzkoako enpresak EMAS ziurtagiria duten Gipuzkoako erakundeak (publikoak eta pribatuak)	8.4	TESTU.	EJ	Kop.	2020
	Turismo-ostatu jasagarriak Moda Jasagarriaren Klusterreko enpresak	8.4	JARD.	GFA	Kop.	2020
	Moda Jasagarriko Gipuzkoako enpresak Eko-etiketa duten Gipuzkoako turismo-ostatuak	8.9	TESTU.	EJ	Kop.	2020
9	Industria-sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak Industria-sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak, CO2 mila tonatan	9.4	TESTU.	IHOBE	Milaka tCO ₂ eq	2019
	Gipuzkoako enpresa-sektoreak prozesuen ingurumen-hobekuntzetan inbertitutako euroak Enpresek ingurumenari dagokionez inbertitu eta Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiak edo Eusko Jaurlaritzak emandako espedienteetan tramitatutako euroen batura	9.4	TESTU.	GFA	€	2020
	Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiak emandako egokitasun-ziurtagiriak Enpresek ingurumenari dagokionez egindako hobekuntzekin lotuta, Ingurumenaren Zuzendaritza Nagusiak tramitatutako eta aldeko emaitza jaso duten ziurtagirien kopurua	9.4	JARD.	GFA	Kop.	2020
	Ekonomia zirkularreko klusterretan parte hartzen duten enpresak Ekonomia zirkularreko klusterretan parte hartzen duten enpresak	9.4	JARD.	GFA	Kop.	2020
11	Garraio-sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak Gipuzkoako garraio-sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak, CO ₂ mila tonatan	11.2	TESTU.	IHOBE	Milaka tCO ₂ eq	2019
	Lurzoruz artifizializatua Lurzoruz artifizializatua, hektareatan	11.3	TESTU.	UDALP LAN	Ha	2020
	Herriaren parte-hartzearekin egindako Hiri-antolamenduko Plan Orokorrek dituzten udalerriak Plangintza 2/2006 Legeari egokituta duen udalerrri kopurua; plangintza prestatzeko herriaren parte-hartzea exijitzen du lege horrek	11.3	TESTU.	GFA	Kop.	2020
	Zaratagatiko kutsadura Bizilagunek edo kanpoan sortutako zarata-arazoak jasaten dituzten biztanleen portzentajea	11.6	TESTU.	EUSTAT	%	2020
	Tokiko Agenda 21 indarrean duten udalerriak vigente Tokiko Agenda 21 indarrean duten udalerriak	11.a	TESTU.	GFA	Kop.	2020
	Tokiko 2030 duten udalerriak (indarrean edo prestatzen) 2030 Agendaren Plana duten edo prestatzen ari diren udalerrien kopurua	11.a	TESTU.	GFA	Kop.	2020

¹ 7. GJhren lehenengo bi adierazleen lehen mailako datuak bi iturritakoak dira. 2017ko datua: "Pobreziari eta Gizarte-bazterkerari buruzko 2017ko inkesta". 2018-2020ko datuak: "Familia-gastuaren inkesta" eta INE "Familia-aurrekontuen inkesta"

ODS	Izenburua / Deskribapena	Helmuga	Moza	Iturria	Unitatea	Eskur. azken eko urtea
12	Elikagaien aprobeixamendua "Azken minutua" programaren bitartez, berreskuratu eta beharra duten pertsonen banatutako jaki kontsumigarriak, kilogramotan	12.3	JARD.	GFA	kg	2020
	Hondakin arriskutsuak Gipuzkoak enpresek sortzen dituzten Hondakin Arriskutsuak, tonatan	12.4	TESTU.	EJ	Tn	2018
	Hiri-hondakinak Biztanle eta egun bakoitzeko sortutako hiri-hondakinak, kilogramotan	12.5	TESTU.	GFA	Kg/bizt./egun	2020
	Birziklatze-tasa Birziklatzen den hiri-hondakinen portzentajea	12.5	TESTU.	GFA	%	2020
	Gaikako bilketaren tasa Gaika biltzen den etxeko hondakin portzentajea	12.5	TESTU.	GFA	%	2020
	GNaturaldia programan parte hartzen duten pertsonak Urtean programa horretan parte hartzen duen pertsona kopurua	12.8	JARD.	GFA	Pertsona kop./urt eko	2020
13	Hondamendiei egozten zaizkien heriotzak Zuzenean hondamendiei egozten zaizkien arrazoiengatik hil den pertsona kopurua, 100.000 biztanleko	13.1	TESTU.	EUSTAT	%o	2020
	Natura-hondamendiek eragindako galera ekonomikoak Natura-hondamendiek (uholdeak, ekaitzak, lehorteak) zuzenean eragindako galera ekonomikoak, eurotan	13.1	TESTU.	Aseguruen konpentsazio partzuergoa	€	2018
	Klima eta Energia Planak dituzten udalerriak (indarrean edo prestatzen) Klima eta Energia Planak (arintzeko eta/edo egokitzeko) dituzten edo horiek prestatzen ari diren udalerrien kopurua	13.2	TESTU.	EJ GFA	Kop.	2020
	Energiaren plangintza eta kudeaketa aktiboa duten eskualdeak Energiaren plangintza eta kudeaketa aktiboa duten eta Energia Jasangarriaren eta Energia Pobreziaren Gipuzkoako Lurralde Mahaian sartu diren eskualdeen kopurua	13.2	TESTU.	GFA	Kop.	2020
	Klima-aldaketaren aurreko Gipuzkoako Estrategiaren egikaritzea 2018an onetsitako Gipuzkoa 2050 Estrategiaren betetze-maila (portzentajea)	13.2	JARD.	GFA	%	2020
	Klima-aldaketagatik kezkaturik dauden biztanleak Klima-aldaketagatik "nahiko kezkaturik", "oso kezkaturik" edo "larriki kezkaturik" dagoela dioten Gipuzkoako biztanleen portzentajea	13.3	TESTU.	GFA	%	2019
	Klima-aldaketaren aurkako borrokan jarduten dutela dioten biztanleak Arlo pertsonalean, azkeneko sei hilabeteetan, Klima-aldaketaren aurka borrokatzeko neurriak hartu dituela adierazi duten Gipuzkoako biztanleen portzentajea	13.3	TESTU.	GFA	%	2019
	Berotegi-efektuko Gasen emisioak Gipuzkoan Berotegi-efektuko Gasen guztizko emisioak, CO2 mila tona baliokidetan (sektoreak: energetikoa, industria, garraioa, bizitegiak, zerbitzuak, nekazaritza, hondakinak eta elektrizitate-elkartrukean dagozkionak)	13.3	TESTU.	IHOBE	Milaka tCO ₂ eq	2019
	Emisio barreiatuak, biztanle bakoitzeko Emisio barreiatuak (garraioa, bizitegiak, zerbitzuak, nekazaritza, hondakinak eta industria, eta EU ETS ez diren sektoreak) biztanle eta urte bakoitzeko, CO ₂ tona baliokidetan	13.3	TESTU.	IHOBE	Milaka tCO ₂ eq	2019
	Mikro-plastikoek eragindako kutsadura Mikroplastikoen kontzentrazioa Gipuzkoako itsasoko uretan (Mikroplastikoa/km ²)	14.1	TESTU.	LIFE LEMA	Mikroplastikoa/km ²	2017
14	Hondartzetako bainurako uren kalitatea Kalitate bikaina ematen duten laginketa-estazioen portzentajea	14.1	TESTU.	NAYADE	%	2020
	Kostaldeko uren kalitatea Egoera ekologiko ona edo oso ona duten kostaldeko ur-masen portzentajea	14.1	TESTU.	URA	%	2019
	Kostaldeko eta estuarioetako Babestutako Natura-espazioak Kostaldeko eta estuarioetako espazioak barne hartzen dituzten Babestutako Natura-espazioak	14.2	TESTU.	GFA	Ha	2020
	Hondartzen garbiketa Gipuzkoako hondartzetan bildutako zabor tonak	14.2	JARD.	GFA	Tn	2020
	Hondakin-bilketa kaletan Murgita, Burumendi eta Inpernue kaletan bildutako hondakin-unitateen (itemak) batez besteko kopurua	14.5	JARD.	GFA	itemak	2020
	15	Babestutako espazio naturalak Babestutako natura-espazioek okupatutako hektareak	15.1	TESTU.	EJ	Ha
Baso erdi-naturalak Baso erdi-naturalek okupatutako hektareak (baso-inbentariotik)		15.1	TESTU.	GFA	Ha	2020
Zuhaizdun baso-azalera Baso-azalera (hektareatan), basoak, landaketa-basoak eta galeria-basoak barne (baso-inbentariotik)		15.1	TESTU.	GFA	Ha	2020
Baso-azalera ziurtatua PEFC programaren arabera ziurtatutako baso-azalera		15.2	TESTU.	PEFC Euskadi	Ha	2020
Zona degradatuen berroneratzea Berroneratutako azalera degradatua, metro koadrotan		15.3	JARD.	GFA	m ²	2020
Babestutako mendi-ekosistemak Babestutako Natura-espazio baten barruan egonik, 1.000 metrotik gorako altueran dagoen azalera portzentajea		15.4	TESTU.	EJ	%	2020
Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden fauna-espezieak "Desagertzeko arriskuan" eta "zaurgarriak" kategorietan katalogatuta dauden Gipuzkoako fauna-espezieen kopurua		15.5	TESTU.	EJ	Kop.	2020
Desagertzeko arriskuan eta egoera zaurgarrian dauden flora-espezieak "Desagertzeko arriskuan" eta "zaurgarriak" kategorietan katalogatuta dauden Gipuzkoako flora-espezieen kopurua		15.5	TESTU.	EJ	Kop.	2020
Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa Arriskuan egonik (arriskuan eta egoera zaurgarrian), kudeaketa- edo berreskuratze-planak dituzten espezieen proportzioa		15.5	JARD.	GFA	%	2020
Espezie inbaditzaileen gaineko kontrola Gipuzkoan Gipuzkoako Foru Aldundiak espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko egin duen inbertsioa, eurotan (€)		15.8	JARD.	GFA	€	2020

ODS	Izenburua / Deskribapena	Helmuga	Moia	Iturria	Unitatea	Eskur. azken eko urtea
16	Argitaratutako ingurumen-txostenak Ingurumenari buruzko interesdun informazioa duen txosten kopurua, Gipuzkoako Foru Aldundiko IOHDk argitara emandakoak (ingurumenarekin lotutako haien egoerari buruzko txostenak eta Departamentuaren politiken ebaluazio-txostenak)	16.6	JARD.	GFA	Kop.	2020
	Parte hartzeko egitura egonkorrak Parte hartzeko egitura formalen kopurua (Hondartzen Mahaia, Energiaren Mahaia eta Hondakinen Mahaia, GK Green Fashion Klusterra, GK Recycling Klusterra eta Energia-jasangarritasunaren Batzordea)	16.7	JARD.	GFA	Kop.	2020
17	Garapen jasangarriko helburuak lortzeko sare eta aliantzetan duen presentzia Gipuzkoako Foru Aldundiko IOHD presente dagoen Garapen Jasangarriarekin lotutako sare eta aliantza kopurua	17.16	JARD.	GFA	Kop.	2020

*EJ: Eusko Jaurjaritza / GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia
TESTUINGURUA / DES.: JARDUNA

4. Ingurumen-adierazleen analisia Gipuzkoan

Hurrengo orrialdeetan, Garapen Jasangarriko Helburuen ingurumen-helmugek Gipuzkoan izan duten aurrerapenaren jarraipena egiteko adierazleen emaitzak aurkezten dira eta, hala dagokionean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako Departamentuak egindako lanarekin lotuta dauden jardun-adierazleak ere gehitzen dira.

Helburu bakoitzean, analisi honetan kontuan izan diren helmugak eta ebaluatu diren adierazleak aipatzen dira.

Semaforo bat erabili dugu adierazle bakoitzaren emaitzetan lortutako aurrerabidea kalifikatzeko; berdeak esan nahi du ona izan dela aurrerapena, laranja erdipurdikoa, eta ● ● ● gorriak txarra.

2 GOSERIKEZ



Maila globalean, gosearekin amaitzea, elikadura-segurtasuna lortzea, nutrizioa hobetzea eta nekazaritza jasangarria sustatzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen **8 helmugetatik 2** hartzen ditu IOHDk erreferentziako helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokituta. Elikadura osasungarri, elikagarri eta behar bestekoa izatearekin eta nekazaritza-sektoreak klima-aldaketara egokitzeko gaitasunarekin lotutako gaiak hiltzen diete helmuga horiek.

ERREFERENTZIAKO-HELMUGAK ETA LANTZEN DITUZTEN EREMUAK

2.1

Pobrezia eta zaugarritasun egoeran dauden pertsonen, batez ere urtebetez azpiko haurtxoek, urte osoan elikadura osasungarria, elikagarria eta nahikoa izan dezaten ziurtatzea


2.4

Produktibitatea eta ekoizpena handitzen duten, ekosistemak mantentzen laguntzen duten eta klima-aldaketara egokitzeko gaitasuna indartzen duten nekazaritza-jardunbide erresilienteak aplikatzea



EGOERA GIPUZKOAN

1.326 hektarea erabiltzen ziren nekazaritza ekologikorako 2020an



TESTUINGURUA

Testuinguruari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
● Nekazaritza ekologikoko azalera Nekazaritza ekologikorako erabiltzen diren hektareak	627	666	750	848	1.224	1.326
● Lehen sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak Lehen sektorearen Berotegi-efektuko Gasen emisioak, CO ₂ mila tonatan	-	208	206	179	191	-

3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



Maila globalean, bizi-tza osasungarria bermatzea, eta adin guztietako pertsona guztien ongizatea sustatzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen **12 helmugetatik 1** hartzen ditu IOHDk erreferentzia-ko helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitate-ra egokituta. Airearen, uraren eta lurzorua-ren kutsadurak osasunean duten eragin kaltegarria murriztea da helburua.

ERREFERENTZIAZKO-HELMUGA ETA LANTZEN DITUEN EREMUAK


3.9

Airearen, uraren eta lurzorua-ren kutsadurak osasunean duten eragin kaltegarria murriztea



TESTUINGURUA

EGOERA GIPUZKOAN



2020ko egunen % 87an, airearen kalitatea "oso ona" edo "ona" izan zen

Testuinguruari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Airearen kalitatea						
Urtean zehar airearen kalitatea "oso ona" edo "ona" den egunen portzentajea	%84	%82	%94	%93	%91	%87

4 KALITATEZKO HEZKUNTZA



Kalitatezko hezkuntza inklusiboa eta zuzena bermatzea, eta guztientzako etengabeko ikaskuntza-aukerak sustatzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen **10 helmugetatik 1** hartzen ditu IOHDk erreferentziazko helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokituta. Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezko ezagupen teoriko eta praktikook euren gana ditzaten ziurtatzea da helburua.

ERREFERENTZIAZKO-HELMUGA ETA LANTZEN DITUEN EREMUAK

4.7

Ikasle guztiek garapen jasangarria sustatzeko beharrezko ezagupen teoriko eta praktikook euren gana ditzaten ziurtatzea



TESTUINGURUA

EGOERA GIPUZKOAN



GNaturaldiaren azterlan baten arabera, 1,42koa da lehen hezkuntzako ikasleek naturarekin duten konexioaren indizea

Testuinguruari dagozkion adierazleak

2015 2016 2017 2018 2019 2020

	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Ikasleek naturarekin duten konexioaren indizea 8 eta 12 urte bitarteko haurretan zentratzen den azterketa-metodologia batean oinarritutako indizea. Lau gai neurtzen ditu indize horrek: naturaz gozatzea; animaliekiko enpatia, nortasun-zentzua eta erantzukizun-zentzua. 1-5 eskalan neurtzen da indize teorikoa. Britainia Handia bezalako herrialdeetan erabiliena da, eta 2tik beherakoa da beti balioa.	-	-	-	-	1,42	-

5 GENERO BERDINTASUNA



Helburu honen helburua da, maila globalean, genero-berdintasuna lortzea eta emakume eta neska guztiak ahalduntzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen **9 helmugetatik 1** hartzen du erreferentzia gisa, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokituta. Helburu honen ardatza da genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea.

ERREFERENTZIAZKO-HELMUGA ETA LANTZEN DITUEN EREMUAK

5.c

Genero-berdintasuna eta emakume eta neska guztien ahalduntzea maila guztietan sustatzeko politika egokiak eta lege aplikagarriak onartzea eta indartzea



JARDUNA

EGOERA GIPUZKOAN



Genero-ikuspegia barne hartzen duten ingurumenaren arloko bi plan 2020an

Jardunari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
Genero-ikuspegia barne hartzen duten ingurumen-planak Genero-ikuspegia txertatu den foru-mailako ingurumen-planen kopurua.	0	0	0	1	2	2

6 UR GARBIA ETA SANEAMENDUA



Maila globalean, pertsona guzientzako uraren eta saneamenduaren eskuragarritasuna eta kudeaketa jasangarria bermatzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen **8 helmugetatik 5** hartzen ditu IOHDk erreferentziazko helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitatera egokituta. Departamentuaren jarduerarekin lotutako arloak hartzen dituzte helmuga hauek, hala nola biztanleentzako uraren kalitatea ziurtatzea, saneamendua bermatzea eta industriek ibaietara egiten dituzten isurketak kontrolatzea, uretako ekosistemak babestea ingurumen-ebaluazioak eginda, eta ibai-

ERREFERENTZIAKO-HELMUGAK ETA LANTZEN DITUZTEN EREMUAK


- 6.1 Edateko ura guzientzako, modu parekidean eta arrazoizko prezio batean izatea lortzea
- 6.2 Saneamendu-zerbitzu egokiak eskuragarri izan daitezen lortzea
- 6.3 Uraren kalitatea hobetzea, kutsadura murriztuz
- 6.4 Sektore guztietan, ur-baliabideen erabilera eraginkorra areagotzea
- 6.6 Urarekin lotutako ekosistemak babestea eta berroneratzea

EGOERA GIPUZKOAN

TESTUINGURUA



Hondakin-uren tratamendurik ez duten 11 hirigune 2020an



2019an, estuarioen % 83k egoera edo gaitasun ekologiko ona edo oso ona zuten

Testuinguruari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<p>● Edateko ura duen biztanleria Modu seguruan kudeatutako edateko uraren hornikuntza-zerbitzua duten biztanleen portzentajea</p>	%100	%100	%100	%100	%100	%100
<p>● Hondakin-uren tratamendurik ez duten hiriguneak Haien hondakin-uren tratamendu egokirik ez duten 500 biztanle baino gehiagoko hiriguneen kopurua</p>	13	12	11	11	11	11
<p>● Ibaien kalitatea Egoera onean dauden edo potentzial ekologikoa duten ibaietako laginketa-estazioen portzentajea</p>	%48	%56	%62	%75	%69	%46 ²
<p>● Estuarioen egoera ekologikoa Egoera edo gaitasun ekologiko ona edo oso ona duten estuarioen portzentajea</p>	%16	%66	%66	%83	%83	-
<p>● Lurrazpiko uren kalitatea Egoera onean dauden lurrazpiko uren laginketa-estazioen portzentajea</p>	%90	%90	%90	%90	%90	%90
Jardunari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<p>● Ibai-ekosistemak berroneratzea IOHDk berroneratutako ibai-ekosistemak, hektareatan</p>	2	2,5	0,2	13,3	14,9	1

² 2020an, datua beste urte batzuekiko jaitsi izanaren arrazoia da orain arte kontuan hartzen ez ziren parametro hidromorfologikoak kontuan hartzen direla.

7 ENERGIA ESKURAGARRI ETA EZ KUTSATZAILEA



Maila globalean, pertsona guztiak energia eskuragarria, fidagarria, jasagarria eta modernoak izan dezaten bermatzea.

Helburu honetan, Nazio Batuen Erakundeak planteatzen dituen **5 helmugetatik 3** hartzen ditu IOHDk erreferentziako helburutzat, Gipuzkoako testuingurura eta errealitateara egokituta. Helmuga horiek pobrezia energetikoarekin, energia berriztagarrien aldeko apustuarekin eta energia-eraginkortasuna hobetzearekin

ERREFERENTZIAKO-HELMUGAK ETA LANTZEN DITUZTEN EREMUAK

7.1 Energia-zerbitzu eskuragarri, fidagarri eta modernoak eskuratzeko aukera bermatzea


7.2 Energia berriztagarrien proportzioa handitzea

7.3 Energia-eraginkortasunaren hobekuntza-tasa bikoiztea

EGOERA GIPUZKOAN



TESTUINGURUA



2019an, % 6,53koa izan zen Gipuzkoako auto-horniketa energetikoa



2019an kontsumitutako azken energiaren % 17,71 iturri berriztagarrietatik eskuratutakoa zen



JARDUNA



2015etik 2020ra, % 14 murriztu da foru ekipamenduen energia-kontsumoa

Testuinguruari adierazleak	dagozkion	2015	2016	2017	2018	2019	2020
● Energia-gastua euren gain hartu ezin duten etxeak Energiarekin zerikusia duten ordainagiriak ordaintzeko atzerapenak dituztela dioten etxeen portzentajea		-	-	-	%0,9	-	%3,1
● Diru-sarrerekiko, gehiegizko energia-gastua duen etxebizitza kopurua Gipuzkoako etxeen batez besteko energia-ahaleginaren bikoitza baino handiagoa egin behar duen etxe kopurua (diru-sarrerekiko etxeko energia-gastuaren portzentajea)		-	-	39.837	37.382	38.824	43.709
● Iturri berriztagarrien kuota Energia berriztagarrietatik eratorritako barne-kontsumo gordina, inportatutako energia elektrikoaren frakzio berriztagarria barne, guztizko azken kontsumoaren artean		%16,05	%17,06	%15,51	%18,71	%17,71	-
● Azken energia-kontsumoa Azken energia-kontsumoa Gipuzkoan (ktep)		1.868	1.860	1.981	1.934	1.912	-
● Amaierako energia-intentsitatea Unitate ekonomiko bat sortzeko beharrezko azken energia. Azken energia-kontsumoa eta BPG erlazionatzen ditu. Azken energia-kontsumoa /BPG (tep/M€).		%84	%81	%83	%77	%73	-
● Lurraldearen energia-mendekotasuna Auto-hornikuntza energetikoa. Lurraldean bertan sortzen den lehen mailako energiaren % adierazten du, sortutako lehen mailako energiaren eta barne-kontsumo gordinaren arteko erlazio modura kalkulatu da.		%5,82	%6,58	%6,67	%7,23	%6,53	-
Jardunari dagozkion adierazleak	2015	2016	2017	2018	2019	2020	
● Energia-eraginkortasuna foru ekipamenduetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren energia-kontsumo handieneko 10 eraikinen kontsumoa (kWh/m ²) (eraikin guztien lehen mailako energiaren kontsumoaren %71 kontzentratzen dute)	261	257	253	247	244	225	

8 LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA



